

# Albistegia



# HERRI BERRI

# EDITORIALA

kaixo Busturia!  
 Hemen gaude berriro zuei berri asko emateko.  
 Gogoratzen duzue aurreko albistegia? Gustatu al zitzazuen? Ba, hau interesgarriagoa izango da. Irailan, urrian, azaroan eta abenduan gertatutakoa agertzen da.

Gure eskolan eta herrian gertatutako berriak kontatzen ditugu.  
 Irakurtzen baduzue gustatuko zaizue!  
 Beti bezala gure web gunean agertuko da:  
**[www.galeon.com/uzelai](http://www.galeon.com/uzelai)**.

**Espero dugu zuen gustukoa izatea!**

## Ander Deuna

### 4. MAILA

Azaroaren 30ean Ander Deunaren eguna ospatu zen Sukarrietan.  
 Goizean 12etan meza bat egon zen Ander Deunaren parrokiari.  
 Han izan ziren ere Mundakako txistulariak.  
 Mezan hitz egiten

hasteko edo hasiberriak diren hainbat umetxo egon ziren ohiturak  
 Diolako santuak horretan lagunduko diela. Meza ostean "Irrintzi Alai" dantza taldeak alaitu zuten hango enparantza. taldeko gazte eta umetxoek hartu zuten parte:  
 Aulki dantza,

espata dantza, Olapoko eskudantza ... dantzatu zuten.  
 Gure eskolako Ikasle askok ere hartu zuten parte.  
 Horren ondoren Udaletxeak atek zabaldu zituen zerbait jatera joateko.

### Aurkibidea:

Editoriala. Ander Deuna.	1
Ebakuazioa. Haizeak egindakoa. Axpeko frontoi berria.	2
Paresiko istripua. Eskolako irratia. Astoproben pista.	2
Bide Hezkuntza. Uholdeak.	3
Errezetak ikastetxean. Zuhaitzen kimaketa.	3
Har Hazkuntza.	3
Hegaztien behatokia. Kattalin etorri da.	4

## Ebakuazioa

## Haizeak egindakoa

### 5.MAILA

Igaro den ostiralean gizon bat gure eskolako ebakuazioa ikustera etorri zen. Gu ez ginen konturatu baina klasean geundela andereño batek sua zegoela esan zuen eta eskolako umeak ilaran kalera jaitsi ginen. Bitartean gizon horrek begiratu zuen ea atea itxita zeudela. Gizon

hori etorri zen ia zelan egiten genuen ebakuazioa ikustera, egun batean gertatzen bada ebakuazioa ondo egiteko.

**Eskolan sute simulazioa egin dugu**

### 6. MAILA

Azaroaren 13an arratsaldean haizeak zuhaitz bat bota zuen San Kristobalen. Ume bat adar batek harrapatzeko zorian egon zen. Adar hori oso lodia eta luzea zen. Zuhaitza oso handia, altua eta adartsua zen.

## Axpeko frontoi berria

## Paresiko istripua

### 1.eta 2. MAILA

Laster Axpeko frontoia botako dut eta hemen jolas leku bat egingo dute. Frontoi berria Espiluetan egingo dute eta honek teilatua izango du.

### 5. MAILA

Paresiko bidean istripu bat egon zen. Bidean hostoak zeuden eta kotxea amildegi txiki batetik erori zen.

Kotxea gidatzen joan zenari ez zitzaion ezer gertatu.

Gero ertzainak etorri ziren eta grua handi batekin Kotxea atera zuten. Kotxearen aurreko aldea apurtuta zegoen. Hau Urriaren 21ean igaro zen.

## Ekolako irratia

## Astoproben pista

### 4. MAILA

Busturiako eskolan 3.eta 4. mailako umeek ekolako irratitik hitz egingo dute.

Irratsaioa inguruneke gai bat azaltzeko izango da eta ume bakoitzak aukeratu duen animalia bati buruz hitz egingo du.

### 5.MAILA

Altamiran asto proben pista berria egin dute etxe berrietan. Pistak 5 metro ditu gutxi gorabehera. eta azaroaren 21ean amaitu zuten.

## Bide hezkuntza

## Uholdeak

### 6. Maila

Azaroaren 22an bi ertzain etorri ziren gure eskolara oinezkoek eta gidariek ditugun arriskuak azaltzera. Lehenengo oinezkoen arriskuak esan genituen eta gero gidariarenak. Ondoren kalean eduki behar dugun jarrera esan ziguten eta azkenik liburu txiki bat eman ziguten.

### 5. Maila

Abuztuak 26an, astelehena, Busturian goizean uholdeak egon ziren. Ia Busturiako garaje eta etxe guztiak urez beteak zeuden. Jendea oso urduri zegoenez, ez zuen bere etxea utzi nahi.

Uholdeak euri asko egin zuelako sortu ziren. Errekak ahal zuen guztia igo eta Altamiran

baranda bat apurtu zuen zubi batean, eta zubi berean zuhaitzak trangatuta gelditu ziren. Uholdeetan estoldetatik ura irteten zen.

Uholdeak iragan eta gero bi kamioi joan ziren San Cristobalera estoldak eta uholdeak eraman zuen basa garbitzera.

## Errezetak ikastetxean

## Zuhaitzen kimaketa

### 3. MAILA


Iaz Altamirako eskolan berriak landu genituen. Orain errezetak lantzen ari gara. Horregatik errezeta mordoa biltzen gabiltza gabonetako errezetekin liburuxka bat prestatzeko. Horretaz gain gela bakoitzak errezeta bat prestatuko du eskolan.

### 4. MAILA

Azaroaren 12an Sukarrietako parkean zuhaitzen adarrak ebaki egin zituzten. Orain zuhaitzak biluzik daude. Kimaketa udaberrian zuhaitzak hobeto hasteko egiten da.

**Errezeta  
testu  
mota lantzen  
ari gara**

## Haur Hezkuntza





**JOSE MARIA UZELAI  
IKASTETXE PUBLIKOA**

Altamira 37  
48350 BUSTURIA

Telefonoak: 946870905-  
946871803  
Fax: 946870905

Email: uzelai@teletel.es  
014230aa@hezkuntza.net

IKUS EZAZUE GURE WEB  
GUNEA



[www.galeon.com/uzelai](http://www.galeon.com/uzelai)

## Hegaztien behatokia berreraiki dute

---

### 5.MAILA

---

Iazko uztailan ezezagun batzuk Urdaibaiko hegaztien behatokia hondatu zuten. Ekipamendu publiko hau boluntarioen bidez egin eta, zutik egon zen bitartean 10.000 pertsonak erabili zuten, Urdaibaiko ur – hegaztiak behatuz kalterik egin gabe.

Aurton Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Inguruneko Sailak eta Urdaibaiko Patronatuak laguntza eman dute behatokia berreraiki ahal izateko.

Lanak urriaren 5ean bukatuta egon ziren, paduretako hegaztiak era egokian ikusi ahal izateko.

## Kattalin etorri da

---

### 6.MAILA

---

Kattalin urriaren 30ean etorri zen. Guri liburu batzuk utzi zizkigun, guk irakurketari zaletasuna hartzeko. Kattalinek abesti batzuk erakutsi zizkigun. Oso ondo pasa genuen. Bere altxorra liburuak dira eta Long Jonh Silver bere etsaia. Kattalinek bi lagun ditu Patxi eta Martin, hirurek piratak dira. Kattalin 28an etorri da bere altxorren bila.

**GABON**

**ZORIONTSUAK**

**IZAN!**